

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



HERNANI JAI BATZORDEA

Jaietan animaliak erabiltzeari buruzko eztabaida, herritarren aurrera gaur

Mahai ingurua egingo dute, arratsaldeko 19:00etan Biterin, Sokamuturra Bai eta Askekintza taldeen partehartzearekin. Jai Batzordeak antolatu du, eta herritar guztiei irekia izango da.

MAHAI gainean jarriko dute gaur, Jai Batzordeak antolatuta, Hernanin eztabaida pizten duen gaietako bat: festetan animaliak erabiltzeari buruz, mahai ingurua egingo dute, arratsaldeko 19:00etan Biterin. Eztabaida horretan, parte hartuko dute bi ikuspegi nagusietako defendatzaileek: Askekintza talde antiespezistak, eta Sokamuturra Bai taldeak. Jon Odriozola ariko da moderatzaile lanetan.

«Jaietako hiru ekintza garrantzitsuenetakoa da sokamuturra, herriarentzat» Sokamuturra Bai taldetik, nabarmendu dute, «jaietako hiru ekintza garrantzitsuenetakoa» dela sokamuturra, «guretzat eta, uste dugu, baita herriarentzat ere. Plaza betetzen du, eta gure kulturaren eta tradizioaren parte da». Azaldu du, gainera, ez dutela sokamuturra bakarrik defendatuko; bai-

ta animaliak erabiltzen dituzten beste zenbait ekintza ere, «Euskal Jaietako azokak, edota Portuko asto karrerak bezala. Ez baitugu uste animalien sufrimendua eragiten dutenik».

Era berean, uste dute, anti-espezistek lortzen badute bizi-rik dauden animalien erabilpena kentzea, «hildakoeekin» sartuko direla: «pentsatzen dugu, beraiei inpaktantea egingo zaiela axeri buru bat edo masakuriak ikustea. Hori ere defendatzea dagokigu».

«Herri gisa, lotsagarria da tradizioaren izenean praktika hauek onartzea»

Askekintzak, berriz, adierazi du animaliak «beraien interesen kontra» erabiltzen direla Hernaniko jaietan, animaliak presente dauden ekintzetan, «norberaren dibertsioa soilik» hartuta kontuan. «Jakinda beste animaliek, guk bezala, aske bizi eta errespetatu daitezkeen nahi



Jaietako sokamuturra da, eztabaldaren puntu nagusietako bat.

dutela, uste dugu ekitaldi horiek eraldatu egin behar ditugula. Herri gisa, lotsagarria da tradizioaren izenean horrelako praktikak onartu eta, gure pribilegioak erabiliz, gizakiok beste animaliak esplotatzea. Gure herriak aurrerapauso ugari eman ditu, jendarte justuago

bat sortzearen alde; eta uste dugu, orain ordua dela festetako animalien erabilerari aurre egiteko», diote.

Mahai ingurura gonbidatu dituzte herritar guztiak, «gure jarrera ulertu eta proposamenak egiteko, festa inklusibo eta justuago batzuen alde».

HERNANI HITZALDIA

Airearen kalitateari buruzko ikerketaz, azalpenak gaur

Hitzaldia antolatu du gaur, 19:00etan Biterin, Hernaniko airearen kalitatearekin kezkatutako herritar talde batek. Mattin Aldaia Ingurumen zinegotziak eskainiko du, eta azalduko du Airearen kalitateari buruzko ikerketa txostenaren edukia.

HERNANI HEZKUNTZA

Ate irekiak gaur, Karmelo Labakan

Ate irekien bi jardunaldi antolatu ditu Hernaniko Lanbide Heziketak, eta gaur izango da aurrenekoa, 18:00etan Karmelo Labaka eraikinean. Bestea, maiatzaren 18an egingo dute, goizeko 11:00etan.

ASTIGARRAGA PETRITEGI

Bapo Kantari, bihar

Bapo Kantari kantu afaria egingo dute bihar, 20:00etan Petritegi sagardotegian; eta txartelak salgai daude, 36 euroan: Petritegin, Petrikafen, edota 943 45 71 88 telefonoan.

HERNANI GAUEKO

Catan Txapelketan, azken aukera gaur

Catan Txapelketa jokatu dute larunbatean, Gaueko komiki dendan; eta apuntatzeko, gaur da azkeneko eguna: dendan, 943 57 78 90, edo gaueko-mik@gmail.com. Larunbatean bertan ospatuko dute, baita ere, Doako Komikiaren Eguna.

HERNANI GAZTELEKUA

Dron tailerra, etzi

Dron tailerra egingo dute etzi, Hernaniko Gaztelekuan, goizeko 10:00etatik 13:00etara. 12-17 urteko gazteentzat da, baina aurrez eman behar dute izena, Gaztelekuan bertan.

HERNANI-EREÑOTZU HEZKUNTZA PLATAFORMA

Txirrita eskolako patio berriaz, gaurko saioan

Hezkuntza Eskola antolatu dute, arratsaldeko 18:30etan hasita, udaletxeko areto nagusian.

Eskolako patioak birpentsatzea izango da gaia, eta Ereñotzuko esperientzia ezagutuko dute bertan.

GAUR egingo dute, maiatzeko Hezkuntza Eskola. Arratsaldeko 18:30etan izango da, ohikoa baino ordubete beranduago, baina betiko tokian, Hernaniko udaletxeko areto nagusian. Eta oraingoan, eskolako patio-

ak birpentsatzea izango da, landuko duten gaia.

Zehazki, gertuko esperientzia bat emango dute ezagutzera, gaurko saioan: Ereñotzuko Txirrita eskolarena. Tabakalerako Aldiriak proiektuaren ba-

rruan, eskolako patioa beste modu batera antolatu eta sortu zuten, ikasleekin landuz eta auzolanean gauzatuz. Txirritako ordezkariak izango dira bertan, prozesuaren nondik norakoak azaltzeko.

Saioa irekia izango da, herritar guztientzat; eta bertaratzeko gonbitea luzatu diete, interesa daukatenei. Jakinarazi dute, gainera, zaintza zerbitzua eskainiko dutela, saioak iraun bitartean.



AINHOA
Janaridenda
Nagusia 20, Astigarraga
943 55 12 93

ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

Tripontzi jatetxea
PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK
ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia
Urbieta Etorbidea 7
943 55 09 10

AROZA TABERNA
ETXEAN BERTAN
EGINDAKO OTORDUAK
ONGI ETORRI
943 55 29 78

GAUR Egunaren hasieran, eguzkitsu egongo da tarteka, nahiz eta erdi- eta goimailako lainoak agertuko diren. Eguerdian ugartuko dira lainoak, eta egunaren bukaeran, baliteke euritara jotzea. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, ahul. **Min.10° / Max.19°**

BIHAR Giro tristeagoa izango dugu bihar. Zerua lainotuta egongo da, egun osoan zehar, eta zaparradak bota ditzake, bereziki eguerditik aurrera. Hegoaldeko haizea ibiliko da hasiera, baina iparraldera aldatuko da gero. Tenperaturak gora egingo du: **Min.12° / Max.22°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Erebesto** Elcano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

HERNANI 'HEDATUZ'

«Ikusarazi nahi dugu, gure gaixoeke zein zailtasun dituzten sozializatzeko»

Laburmetrai emanaldia antolatu dute bihar, 19:00etan Biterin, AGIAC, AGISAS, Bihotzez eta Bizibide elkarten lana aditzera emateko.

EMANALDI berezia izango da bihar, arratsaldeko 19:00etan Biterin. Hedatuz proiektuaren barruan, laburmetraiak jarriko dituzte, lau elkarteren lana ezagutzera emateko: Bizibide, Bihotzez, AGISAS eta AGIAC.

Atzo aurkeztu zuten, Hernaniko udaletxean, Xabi Lertxundi Zerbitzu Sozialetako presidentek, eta elkarreetako ordezkariak: Alejandro Cadenas eta Julen Ulanga (AGISASeko presidentea eta koordinatzailea), Angela Sir (Bizibide), Mari Jose Alkorta (AGIAC), eta Saray Arozena (Bihotzezeko psikologoa).



Elkarreetako eta udaleko ordezkariak, atzoko aurkezpenean.

Elkarreetako kideak eta boluntarioak, protagonista

Lau film labur izango dira: *El vuelo de las mariposas*; *Inténtalo, todo es posible*; *Tocados por el corazón*; eta *La familia, lo primero*. Horietan, elkarreetako kideak eta boluntarioak dira protagonista, eta filmetako bitan, Oscar Terol eta Alazne Etxeberria aktoreek ere kolaboratu dute.

Lau filmez gain, Bihotzez eta AGIAC elkarreetei buruzko erreportajeak ere jarriko dituzte. Guztietan, euskerazko azpititulua eta gorrentzako keinu hizkuntza txertatu dituzte.

«Etorri filmak ikustera; ezagutzera ematen ez badugu, ez dauka zentzurik»

Cadenasek, proiektuaren dinamizatzaileak, jakinarazi zuen «egunerokoan gaixotasun hauen eraginak jasaten dituzten horiek» direla laburmetraien protagonista: «erakutsi nahi

Garrantzitsua da, biharko emanaldira joateko ez ematea koloniarik, perfumerik, loziorik edo antzekorik.

dugu, zein zailtasun dituzten sozializatzeko. Eskertu nahi dugu boluntarioek egin duten lan guztia, eta baita Terol eta Etxeberria aktoreen kolaborazioa ere. Eta eskertu nahi diegu, modu berean, bihar filmak ikustera gerturatuko direnei. Etorri daitezela herritarrek; bestela, ezagutzera ematen ez badugu, ez dauka zentzurik lan honek guztiak».

Lertxundik, bere aldetik, elkarreeta horien lana goraiatu zuen: «ez gara gaixotasun horietaz kontziente, etxean tokatzen zaizkigun arte. Hernaniar guztiak gonbidatu nahi ditugu emanaldira, oso garrantzitsua baita. Medikuen lana balora-

tzen dugu, baina kontziente izan behar dugu, gaixoeke sozializatorako dauzkaten arazoeke».

Biharko saiurako, koloniak, lozioak... ez emateko deia

Saioa doakoa eta irekia izango da, aretoa bete arte. Baina bertaratuko direnei, eskatu diete ez emateko koloniarik, perfumerik, loziorik edo usaina daukan beste produkturik. Izan ere, sentsibilitate kimiko anitza daukaten pertsonak egongo dira bertan, eta arazo larriak eragiten dizkie.

Gipuzkoako fibromialgia eta neke kroniko sindromearen elkarretea da Bizibide; kardiopatiak dituzten haurren familien elkarretea Bihotzez; Gipuzkoako antikoagulatuen elkarretea AGIAC; eta gizarte integratzaile gizarte eta kultur animatzaileen elkarretea AGISAS. Guztiek emango dute bihar, modu zabalagoan, egiten duten lanaren berri. ||

ASTIGARRAGA EH BILDU

Batzarra gaur, programa aurkezteko

19:30etan deitu du batzarra EH Bilduk, Joseba Barandiaran plazan eta euria egiten badu Zipotza elkarretera aldatuko da.

GAUR hasiko da hauteskunde kanpaina, gauerdian; eta horren aurretik, batzarra antolatu du Astigarragako EH Bilduk, hurrengo legealdirako programa aurkezteko.

19:30etan hasiko da, Joseba Barandiaran plazan, eguraldi

ona eginez gero; bestela, Zipotza elkarretera izango da.

Programaren bederatzi lan ildoak aurkeztuko dituzte bertan: «garrantzia berezia hartuko dute hezkuntzak, etxebizitza politikak, kirolak, partehartzeak, eta gazteen eta ne-

rabeen lan esparruak», aurreratu dute.

Horrez gain, apirileko hauteskunde emaitzen balorazioa ere egingo dute, gaurko batzar horretan. Herritar guztiei egiten die dei partehartzera ekimen desberdinetan. ||

JASOTA BEZALA

Orain ulertzen dugu, oposizioarekiko ankerkeria eta tratua

EH Bilduren gehiengo absolutuarekin zortzi urte igaro ondoren, orain ulertzen dugu bere jarrera. Zortzi urte, non EAJri eta oposizio osoari, trabak jarri zaizkigun informazioa sarbidea izateko edota udal teknikariek obra publikoak bisitatzeko; ez da oposizioko inor liberatu legeak derrigortu arte; ez dira inoiz kontutan hartu euskal udalerrien elkarretea (EUDEL) egindako gomendioak, oposizioa kaltetzen duen proposamen bat egin duen arte (inguruko herrietatik, Hernanik bakarrik hartu du kontutan); ez da errespetatu oposizioko zinegotzi liberatuak enpresa pribatua zeukan soldata eta bai gobernu taldeko batena; lotsarik gabe aritu dira gezurretan... Orain ulertzen dugu. Urte guzti hauetan etsaitzat hartu gaituzte, eta hala adierazi zuten apirileko plenoan.

Harrituta jarraitzen dugu. EH Bilduri ahoa betetzen zaio, hitz egiten elkarbizitzari eta

ezberdin pentsatzen duenarekiko errespetuari buruz; baina gezurretan aritu dira. Gorroto sentimendua mantentzen dute, eta oraindik ere, etsaia gara berarentzat. EH Bilduko zinegotzi hauetako asko, maiatzeko hauteskundeetan aurkeztuko dira berriro, eta ez dugu uste, gorrotoa eta politikaren ikuspegi zaharkitu horrek Hernaniko politika gidatu behar duenik, ezta minutu bat gehiago ere.

Elkarbizitzaren alde bost urtez lan egin ondoren, EH Bilduk jarraitzen badu pentsatzen etsaiak garela, benetan arazo bat daukate. Triste da, Hernanin gobernatzen jarraitzen badute, hernaniar guztietara hedatuko dutela beraien arazoa.

Egun batzuk barru, aukera daukagu Hernani herri irekia izateko, eta etorkizunera gorrotorik gabe begiratzeko; eta horretarako, beharrezkoa da berriro konpromisoa erakutsi, eta guztiok joatea bozkatzera.

Andoni Amonarraiz Gómez
EAJ-PNVren bozeramailea
Hernaniko Udalean

Eskelak

JOSE MIGUEL ANDUEZA VALLE
Atzo hil zen, 74 urte zituela

Beti izango zaitugu gure bihotzean.

Emaztea: Txaro Mitxelena; seme-alabak: Estitxu eta Luis, Gema eta Aritz; bilobak: Eneritz eta Axel; ahizpa: Maria Pilar eta Marian; Mitxelena familia, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Familiak jendea hartuko du Hernaniko **ORBEGOZO EHORKETA TANATORIOAN GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZORTZIAK** arte. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2019ko maiatzaren 9an

OHARRA: Azken agurra familian izango da.

JOSE MIGUEL ANDUEZA VALLE

Beti gogoan izango zaitugu

MENDIZABAL AIZKIBEL SENDIA

Hernanin, 2019ko maiatzaren 9an

JOSE MIGUEL ANDUEZA VALLE

Muxu haundi bat Gema eta familiari

GEMAREN KOADRILA

Hernanin, 2019ko maiatzaren 9an

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,.... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)